Gizarte ekonomiaren errealitatea gizarte orokorrari zabaltea eta hedatzea, argitalpen espezifikoaren bidez	<ul style="list-style-type: none"> Lagundutako 19 argitalpen gizarte ekonomian espezializatutako liburu eta aldizkarietan 	<ul style="list-style-type: none"> Ez da aplikagarria
Gizarte ekonomiako gaietan ikerketa jarduerak sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> Laguntza jaso duten ikerketa lanen kopurua (Ez dago eskuragarri) 	<ul style="list-style-type: none"> Ez da aplikagarria
Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak sustatzea gizarte ekonomia Euskadin sustatzeko. Horretarako, gutxienez, euskal agintari publikoen eta euskal gizarte ekonomiako erakunde, mugimendu kooperatibo eta lan elkarte aipagarrien artean asmo onen eta lankidetzarako 2 hitzarmen sinatuko dira	<ul style="list-style-type: none"> Ez da akordiorik izenpetu 	<ul style="list-style-type: none"> Ez da aplikagarria
Gizarte ekonomiako enpresak halako enpresen kudeaketaren betekizun berriei egokitzen laguntzea: sektoreko entitate aipagarriek informazio eta trebakuntza jarduerak espezifikoak burutuko dituzte.	<ul style="list-style-type: none"> Korporazio-gobernuko eredu berria ezarri duten 6 lan-sozietate 	<ul style="list-style-type: none"> Ez da aplikagarria



2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak	Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan	2018rako aurreikusitako helburu espezifikoaren betetze-maila
Gizarte ekonomian elkarrekin sortzea sendotzea, gizarte ekonomiako enpresen elkarrekin-erakundeen mantentzea lagunduz	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 8 elkarrekin-erakunde lagundu dira 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Gizarte ekonomiako enpresen arteko lankidetzaren sustatzea hauen ikusgarritasuna areagotzeko eta lankidetzaren mekanismoak definitzeko azterlanak burutzea bultzatuta	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Burututako 4 azterlan ▪ 4 izenpetutako lankidetzaren hitzarmen 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria



Gauzatutako ekintzak	2020ko elementu esanguratsuenak/mugarriak
<p>Lan-iruzurraren aurkako borroka sendotzea, lan-zentroetako baldintzen gainbegiratzea areagotuta eta ikuskaritza-zerbitzuak indartuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lan ikuskaritzako kanpainak areagotzea Lan Ikuskaritzaren giza baliabideak sendotuz: 2020an hasi da 2018an sortutako lanpostuen estaldura. Halaber, sortzea planifikatu den 10 plazetatik lehenengo hiruren sorrera prozesua hasi da 2020ko abenduan. Gainera, Berdintasunean espezializatutako unitateak sortuko dira hiru Lurraldeko Lan Ikuskaritzetan. ▪ Pandemiaren ondorioz, diru erabilgarri guztia Berdintasunaren esparruko 5 kanpaina espezifiko burutzeko erabili da; beraz, ezin izan da prestakuntza aurrera eraman gai horretan, eta 2021ean ikastaro espezifikoek bidez horri berriro ekitea aurreikusten da. Aurrera eramandako 5 kanpaina horiek lotuta daude Berdintasun-planen neurrien eta Berdintasunaren Legeko beste betebeharrak batzuen kontrolarekin, hala nola generoaren soldata-arraila, lana eta bizi-bizitza pertsonala bateratzea, genero-ikuspegia barneratzen duen lan arriskuen prebentzioa eta sexu-jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpen egoerak. ▪ Berdintasunaren alorreko ekintza positiboko neurriak badirela ikusi da zenbait ikuskaritza-kanpaina orokorrekin esker: kontratazio-iruzurraren aurkako kanpaina, eta bereziki iruzurrezko aldi baterako kontratazioaren eta lanaldi partzialeko kontratazioaren aurkakoa.
<p>Lan-arriskuen prebentzioaren kultura sustatzea hainbat zabalkunde-ekintzari esker, besteak beste: prestakuntza, jardunaldien eta ekitaldien antolaketa eta komunikabideetarako kanpainak prestatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 15 elkarrizketa egin dira (8 irratian, 2 telebistan, 5 idatzizko prentsan), prentsaurreko 1, 15 prentsa-ohar eta 7 erreportaje (artikuluak, hedabideei arreta, etab.). ▪ Dibulgazio kanpaina Laneko Segurtasun eta Osasunaren Mundu Egunaren inguruan, “Taldean lan egitea birusa geldiarazteko” lemarekin; hezur-giharretako asalduren prebentzioari buruzko dibulgazioa Laneko Segurtasun eta Osasunaren Europako Astearen barruan; lan-eremuan COVID-19aren prebentziorako kanpaina sare sozialetan; EHU/UPV ikastaroetako Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko X ikastaroa antolatzea ▪ Elikagaien eta zuraren balio-katerako laneko segurtasun eta osasunaren sektore-estrategia Euskadi 2019-2025 garatzea. ▪ Hainbat prestakuntza ikastaro: Prebentzio Ordezkaritzako oinarritzako prestakuntza (848 pertsona), eta erizaintza graduako 3 pertsona; LSOko goi-mailako langileei eta lan arloko medikuei prestakuntza: 30 ordu laneko segurtasun eta osasunaren eremuko masterrean (UPV/EHU); Osakidetzako langileentzako, prebentzio-zerbitzuen osasun langileentzako eta lanbide heziketako ikasleentzako hainbat prestakuntza-tailer; ADI programa Lanbide Heziketako ikasleentzako artean LSO hedatzeko (356 pertsona).
<p>Genero-ikuspegia lan-arriskuen prebentziorako barne hartzeari buruzko zabalkunde-ekintzen garapena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Laneko segurtasun eta osasunari eta generoari buruz lan egin duten pertsona eta ikerketa-taldeekin datu-base bat egin eta zabaltzea. ▪ Osalanen web gunean eta kanpoko newsletter-ean “LSOan genero-ikuspegia txertatzeko zure enpresan eman ditzakezun 12 urratsak” bideoak hedatzea (gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez).



2020rako aurreikusitako helburu espezifikoak	Adierazleen kuantifikazioa 2020/12/31 datan	2020rako aurreikusitako helburu espezifikoaren betetze-maila
Hitzarmen kolektiboen % 75ko estaldura lortzea 2020. urte amaieran	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 335.122 langile indarrean dauden hitzarmen kolektiboekin (210.619 langile luzatutako hitzarmen kolektiboekin eta 59.243 pertsona eroritako hitzarmenekin) ▪ Langile guztien kopuruarekin alderatuta, langileen % 55,4k du indarrean dagoen hitzarmen kolektibo bat (% 38 luzatutako hitzarmen kolektiboen kasuan eta 9,8 eroritako hitzarmenen kasuan) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurreikusitako estaldura-tasaren % 74 bete da
Urteko trebatze-ekintza bidez Prebentzioko Delekatuek beharko dituzten trebatze-ekintzak bermatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 846 prebentzio ordezkari prestatu dira (595 gizon eta 251 emakume) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Lan-arriskuen prebentzioari buruzko jakintza sustatzea enpresen lehiakortasuna hobetzeko orduan	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikabide orokorretan eta espezifikoetan kontzientziazioko urteko kanpainak egitea: Bai 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Lantokien lan-baldintzak hobe zaintzea lan-ikuskaritzak burututa eta ekintzen % 15 areagotuta 2018ari dagokionez	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 37.769 ikuskaritza lan-zentroetan ▪ % -9,24 ikuskaritza 2019. urtearekin alderatuta 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ezin izan da helburua bete
Ikuskaritza kanpainen emaitzak hobetzea kontratazio eta lanaldiari dagokionez, aldi baterako kontratuen % 100 berrikusita 2020eko amaieran	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 10.489 kontratu berrikusita ▪ Berrikusi diren kontratuen % 29,05 bilakatu egin da 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ezin izan da helburua bete
Urtero, egindako ikuskaritza-kanpainen emaitzak gizarte eragileei eta gizarteari jakinaraztea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikuskaritza-kanpainen emaitzak aldizka zabaltzea: Bai 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Sindikatzeko-maila baxua duten taldeen ikuskaritza erraztea, Lan-iruzurraren aurkako Hiritarren Postontziaren bidez eta beste komunikazio-kanaletara zabaltzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 272 salaketa jaso dira (138 gizon eta 134 emakume) ▪ Lan-iruzurraren aurkako Hiritarren Postontziaren eskuragarritasuna telefono bidez: Bai 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria



2020rako aurreikusitako helburu espezifikoak	Adierazleen kuantifikazioa 2020/12/31 datan	2020rako aurreikusitako helburu espezifikoaren betetze-maila
Emakunderekin enpresetan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko finkatutako lankidetzahitzarmenari esker sortutako urteko lan-plana zehaztea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresatan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko urteko lan-planaren lanketa: Bai 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Lan Ikuskaritzako langileen prestakuntza zabaltzea gizon eta emakumeen arteko berdintasunari dagokionez eta, bereziki, soldaten eremuko diskriminaziorik ezari dagokionez	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Plantilla osoa 2020an dago eratuta, urteko etengabeko prestakuntzaren ondoriozko sendotzearen kalterik gabe. 	
Enpresetan Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Planak burutzea sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erregistratutako berdintasun plan berrien kopurua (2020) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dago eskuragarri
Lan Ikuskaritzak burututako lan baldintzak gainbegiratu eta kontrolatzeko lanetan genero-ikuspegia indartzea, berdintasun planen egikaritzearen jarraipena burutzeko, haurdun dauden langileen segurtasun baldintzak kontrolatzeko eta genero arazoien ondoriozko diskriminazioa gainbegiratzeko kanpainen bitartez	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikuskaritza kanpainetan antzemandako jardunen, errekerimenduen eta arau hausteen kopurua (2020) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dago eskuragarri





9. Esparru operatiboa EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN HOBEKUNTZA

9.1 JARDUERA-ILDOA - LANBIDE ZERBITZUAREN ERREFORMA ETA MODERNIZAZIOA

Gauzatutako ekintzak	2020ko elementu esanguratsuenak/mugarriak
Zerbitzuen, arreta-prozesuen eta baliabide pertsonalen homogeneizazioa.	<ul style="list-style-type: none">▪ 42 enplegu bulegoetan arreta-eredu berria ezarri da, hau da, sare osoan.▪ Hiritarrentzako eta enpresentzako zerbitzuen arreta-prozesuen homogeneizazioa, lanak 2 arreta-mailatan antolatuz: langileen kudeaketa (1. maila) eta teknikariak (2. maila).
Lanbide modernizatzeko laguntza-ekintzen garapena.	<ul style="list-style-type: none">▪ Enpleguko bulegoetan izapidetutako agirien erregistro digitalizatuaren ezarpenean aurrerapausoak. Ezarpena 30 bulegotan hasi da eta 15 bulegotan amaitu da (lurraldeko bulegoak ere kontutan hartuz).▪ “Tablet” gailuen bidez sinadura digitalaren modalitatearen ezarpena eskuzko sinadura behar duten agiri guztietarako, eta 10 bulegotan borondatezko datu biometrikoen bilketa abiaraztea.▪ Itxaronaldi kudeatzailearekin integratutako hitzordu kudeatzailearen sorrera.▪ Datu biometrikoen bidezko identifikazio biometrikoaren proiektua 2020ko otsailean gelditu zen, baina azken fasean, 22 erregistro postu zeuden erabilgarri hainbat bulegotan banatuta.▪ Lanbideren web gunearen ataria modernizatu da, <i>look and feel</i>-aren irudia aldatuz eta dokumentu-kudeaketa hobetuz.



2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak	Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31 datan	2019rako aurreikusitako helburu espezifikoaren betetze-maila
Enplegu-eskatzaillei laguntza integral eta pertsonalizatua ematea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 110.365 parte-hartzaile laneratze-ibilbide pertsonalizatueta (53.305 gizon eta 57.065 emakume) ▪ % 45,81 parte-hartzaile ibilbide pertsonalizatueta langabe guztien kopuruarekin alderatuta 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroa izatea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroaren garapena: BAI 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Lankide publiko eta pribatuekin eta gizarte-zerbitzuekin mantendutako harremanetarako protokoloak sortzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Jakiteke 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Lanbide zerbitzurako bulego eredu berria Lanbide bulegoen sare osora hedatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 42 bulego estandarren eredu berrira egokituta ▪ % 100 bulego estandarren eredu berrira egokituta, sareko guztirako bulego kopuruarekin alderatuta 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Lanbideko programa eta zerbitzu guztietan erregistro digitalizatua ezartzea Lanbideko bulegoen sare osoan	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 42 bulego erregistro digitalizatua ezarrita (lurralde-bulegoak barne) 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreikusitako bulegoen % 100
Lanbideren erabiltzaileen identifikazioa ezartzea datu biometrikoen bitartez (hatz-marka)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 22 lanpostu datu biometrikoen bidezko identifikazioarekin (proiektua eten zen 2020ko otsailean) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Lanbideko barne-ikastaroetan linean ikasteko aukera erraztea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 77 prestakuntza ikastaro on-line modalitatean eskainita (eskainitako ikastaro guztien % 81) ▪ 6 prestakuntza ikastaro modalitate mistoan eskainita (on-line eta aurrez-aurre) (eskainitako ikastaro guztien % 6) ▪ 12 prestakuntza ikastaro aurrez-aurreko modalitatean eskainita (eskainitako ikastaro guztien % 12) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria



2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak	Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31 datan	2019rako aurreikusitako helburu espezifikoaren betetze-maila
<p>Web atari korporatiboa modernizatu eta hobetzea, edukiak eguneratuta eta funtzio berriak garatuta (euskarazko bertsioa, hasierako orriko irudi berriak eta prestakuntzarako plataforma)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskarazko bertsioaren eguneraketa: BAI ▪ Atariko hasierako orriko irudien eguneraketa: BAI ▪ Prestakuntzarako plataformaren eguneraketa: BAI 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria




9.2 JARDUERA-ILDOA - BEHAKETA ETA PROSPEKTIBA LANEN HOBEKUNTZA ENPLEGUAREN ALORREAN

Gauzatutako ekintzak	2020ko elementu esanguratsuenak/mugarriak
<p>Future Lan tresna prospektiboa sendotzea informazio- eta prospekzio-sistema integratu gisa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Future Lan eredu ekonometrikoaren berrikuspenarekin jarraitzea, lan-merkatuko, Kontratuen Erregistroko, proiektzio demografikoen eta enpleguaren eskarian eta eskaintzan dauden eraginei buruzko datu eguneratuak erudian barneratuz ▪ Bi proiektzio kuantitatibo egin dira Lanbide Heziketako eta Unibertsitate Ikasketetako prestakuntza taldeen 22 segmentaziorako proiektzioen ereduari buruz. ▪ Future Lan ereduaren alderdi kualitatiboaren berrikuspena, sektore jakinetako enpresa-elkarteei eta klusterrei inkestak burututa eta etorkizunari aurrea hartzeko txostenak ezagutzera emanda. Halaber, Delphi bat egin zaie enpresa taldeei. ▪ Futurelaneko 62 lanerako taldeak OVATE Europako proiektutik etorritako ESCO gaitasunekin lotuko dituen informazio-sistema garatzea. ▪ 2030eko enplegu-eskariaren proiektzioak egitea. ▪ Future Lan ereduaren alderdi kualitatiboaren berrikuspenarekin jarraitu, sektore jakinetako enpresa-elkarteei eta klusterrei inkestak burututa eta etorkizunari aurrea hartzeko txostenak ezagutzera emanda. ▪ Future Lan-en webgunearen formatuan hobekuntzak. ▪ Biztanleria aktiboaren zahartzearen eraginaren azterketa, ordezkapen bidezko enplegu-eskaerari dagokienez.
<p>Prospekzio- eta alderatze-ekintzen garapena, enpleguaren alorreko bestelako eragile adituekin lankidetzan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Millenium proiektuaren jarraipena, eszenatokiak identifikatzeko metodologian oinarritutakoa. ▪ Ezin izan da kontrasterik egin eskualdeko eragileekiko bileren bidez joera-egoeretan garatu beharreko estrategiei buruz, osasun-krisiaren ondorioz.
<p>Enpleguaren arloko estrategia eta politiken plangintza egiteko orduan zaintzaren eta adimen estrategikoren sistematikak duen garrantzia ezagutzera emateko jarduera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lanbide Heziketako V. Plana laguntzeko tresnen garapenean parte hartzea, familia profesionalen araberako prestakuntza-beharren proiektzioaren esparruan. ▪ Ezin izan da klusterrekin eta sektoreko enpresa-taldeekin lankidetzan SPRIrekin batera parte hartu, pandemiaren ondorioz. ▪ Biltzar, foro eta ekitaldietan parte hartzea, Future Lan-en zerbitzua hedatzeko.



2020rako aurreikusitako helburu espezifikoak	Adierazleen kuantifikazioa 2020/12/31 datan	2020rako aurreikusitako helburu espezifikoaren betetze-maila
Enpleguaren alorreko behaketa eta prospektiba lana sustatzea Future Lan tresna etengabe hobetzeari esker	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Urtean behin Future Lan eredurako eta tresnarako ezarritako datu kuantitatiboak aztertzea: BAI 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
64 talde okupazionalerako informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa duten deskribapen-fitxak garatzea eta argitaratzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 62 fitxa okupazional argitaratuta 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 3 gehiago)
Prestakuntza beharren alorrean osagai prospektibo berri bat garatzea, 25 familia profesionalen eta 26 unibertsitate ikasketa arloren proiektioak burutzeari esker	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 22 familia profesionalen proiektio ▪ 22 unibertsitate ikasketa arloren proiektio 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Prospekzio- eta alderatze-ekintzen garapena areagotzea, enpleguaren alorreko bestelako eragile adituekin lankidetzan	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dira benchmarking-txostena eta EAEari egokitutako Millenium proiektuaren emaitzak burutu 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Lanbidek eta lurraldeko edo sektoreko beste eragile nabarmen batzuek egin duten aurrera begirako lanaren emaitzak zabal daitezen sustatzea, lan-merkatuko eragile garrantzitsu guztiek enpleguaren gaineko joerak eta aukerak ezagut ditzaten, horiekin bat datozen estrategiak eta planak zehaztu eta planifikatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrera begirako lanaren emaitzak urtean behin zabaltzea: BAI 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Merkatuko nahiz gizarte-izaeradun enpresa-ekimen berriak sortzeko bideak aprobetxatu daitezkeen aukerak identifikatu eta zabaltzearekin loturiko ildo espezifikoak eguneratuta mantentzea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aukerak identifikatu eta zabaltzeko ildo eguneratzea, Future Lan tresnaren zati gisa: BAI 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria



2020rako aurreikusitako helburu espezifikokoak	Adierazleen kuantifikazioa 2020/12/31 datan	2020rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila
Biztanleria aktiboaren zahartzeak, lan-merkatuan enpleguaren saldo garbiei dagokienez, dakartzan ondorioen berri ematea eta, zeregin horretan, enplegu-osagaietan, ordezte-enplegua eta enplegu berria bereiztea jarduera-adar eta lanerako talde nagusientzat.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Biztanleria aktiboaren zahartzeak, enpleguaren saldo garbiei dagokienez, dakartzan ondorioen gaineko txostena egitea urtean behin: BAI 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Aurreratze kuantitatiboari buruzko informazioa aberasten duten eta jatorria gizarte-eragileen parte-hartze aktiboan, sektore produktiboen ordezkarietan eta nazioarteko erakunde eta adituetan duten prospektiba kualitatiboko osagaiak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte-eragile eta sektore produktiboen ordezkariekin prospektiba-arloan dauden foroetan parte hartzea: Bai (parte hartzea 5 forotan) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria



9.3 JARDUERA-ILDOA - ENPLEGUAREKIN LOTUTAKO ZERBITZU ETA PROGRAMEN EBALUAZIOAN SAKONTZEA

Gauzatutako ekintzak

Enpleguarekin lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazioak burutzea sustatzea.

2020ko elementu esanguratsuenak/mugarriak

- Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa-eredua Lanbiden ezartzeko prozesuan aurrera egitea eta baita jarraipen, kontrol eta ebaluazio eredu ere.
- Ebaluazio-ekimenean garapenean jarraipena, honako alor hauetan:
 - Bereziki langabeei zuzendutako enplegurako prestakuntza-programak.
 - Enpresei zuzendutako zerbitzuen programak.
 - Unibertsitate-prestakuntzarako eta prestakuntza arautu profesionalerako programak.
 - Lan-orientazioa.
 - Enplegu Bulegoetan jasotako zerbitzuekiko asebetetze-maila.
 - Enplegu Politiken Urteko Plana (PAPE).
- EVADES programa aplikatzen jarraitzea. Programa horren bidez Lanbideren jardueran eragiten duten faktoreen ebaluazioa egiten da.
- Erantzukizun Fiskaleko Autoritate Independentek (Airef), Enplegurako Politika Aktiboen ebaluazio-txostenaren ondorio gisa, zehaztutako jardunbide egokiak eta aholkuak aplikatzea eta jarraitzea.



2020rako aurreikusitako helburu espezifikoak	Adierazleen kuantifikazioa 2020/12/31 datan	2020rako aurreikusitako helburu espezifikoaren betetze-maila
Emaizten ebaluazioa enplegu-programa eta -zerbitzu guztietara hedatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 10 programa eta zerbitzu ebaluatuta ▪ Enplegu-bulegoen zerbitzuen % 100 asebetetze-mailaren ebaluazioarekin 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Enplegu-programa eta -zerbitzu nagusien ebaluazioen emaitzak modu ulergarrian hedatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Burututako ebaluazioen zabalkunde orokorra: BAI, intraneten argitaratu da 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren esparruan desgaitasuna dutenentzat, DSBERen onuradunentzat eta 45 urtetik gorakoentzat garatutako jardueren eraginaren berriazko ebaluazioa gehitzea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Desgaitasuna duten 9.012 pertsonak parte hartu dute Enplegurako Plan Operatiboaren jardueretan (5.291 gizon eta 3.721 emakume) ▪ DSBERen onuradun diren 35.375 pertsonak parte hartu dute 2019ko Enplegu Plan Operatiboaren jardueretan (16.596 gizon eta 18.779 emakume) ▪ 45 urtetik gorako 46.593 pertsonak parte hartu dute 2019ko Enplegu Plan Operatiboaren jardueretan (22.986 gizon eta 23.607 emakume) <p>(Oharra: Lanbideko laguntza-ildoren batean parte hartu duten edo zerbitzuren bat jaso duten pertsonak zenbatu dira)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Enplegu-zerbitzuetako Europako sareko partaideek eta Enplegu Sistema Nazionaleko zerbitzuek garatutako jardunbide egokien eta programa pilotuen berri emateko sistema zehaztea Lanbiden	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 2019an jardunbide egokien eta programa pilotuen berri emateko sistema mantentzea: BAI 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria



2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak	Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31 datan	2019rako aurreikusitako helburu espezifikoaren betetze-maila
Lanbidek garatutako politika aktiboetan kokatutako jarduera guztien gogobetetzea eta jarraipena ebaluatzeko sistema aplikatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enplegu politika aktiboen jardueretatik % 33 ebaluatu dira 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria
Luzaroko langabetuei zuzendutako Gizarte Inpaktuaren Bonuaren programa abiaraztea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Uko egin zaio Gizarte Inpaktuko Bonuaren programa abian jartzeari. 	





Zeharkako esparrua
EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA

Gauzatutako ekintzak

Emakumeen enplegarritasunaren hobekuntzarekin lotutako **ekintza positiboko irizpideak** barne hartzea enplegua sustatzeko hainbat programatan.

2020ko elementu esanguratsuenak/mugarriak

- Laguntzen zenbatekoa % 10era arte areagotzea emakumeen kontratazioarako hainbat laguntza-ildotan, hala nola Lehen Aukera programa, gazteen itzulerarako programa, txanda-kontratua edo desgaitasuna duten pertsonen kontratazioarako lagundutako enpleguaren programa. Bestalde, ekonomia sozialeko enpresetara bazkide gisa emakumeak erakartzeko diru-laguntzen zenbatekoa % 15ean areagotu da, eta baita luzaroko emakume langabetuak kontratatzeko laguntzen ere.
- Emakumeen ekintzaitza sustatzea, ideia bat garatzeko edo enpresa-jarduerak abian jarri eta/edo sendotzeko laguntzak % 15era arte areagotuz, Pertsona Ekintzaileen Laguntza programaren esparruan; edo diru-laguntzen zenbateko jakin bat titularrak emakumeak diren enpresen ekintzaitzara edo gizarte ekonomiako ekintzaitzara zuzenduz.
- Gutxieneko % 40ko ehunekoaren betekizuna ezartzea emakumeen kontratazioaren alde, esaterako, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetan eta egoera ahulagoan dauden gune eta udalerrietako Tokiko Ekintzetan. Ildo beretik, Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren baldintzetako bat da tokiko erakundeek gazteak kontratatzeko egiten dituzten hautespenez-prozesu guztietan, gutxienez, emakume bat parte hartu behar duela.
- Bestalde, antolatutako Lan Eskaintza Publikoek berdinketa emakumeen alde hausteko irizpidea ezarri dute emakumeek % 40tik beherako ordezkartza-portzentajea duten kidego edo eskalen kasuan.
- Emakumeak lehentasunezko kolektibotzat jotzea enplegurako prestakuntza-ekintzetan eta proiektu singularretan. Helburua da emakumeek langabetuen guztizkoan duten proportzio berean parte hartzea.
- Emakumeek aurkeztutako eskaeren balorazioa areagotzea landa-inguruneetan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko laguntza-programa jakinetan, laguntzen zenbatekoa % 15 arte areagotu ahalko direlarik.
- Emakumeen eta gizonen arteko Bertintasun Planaren balioa saritzea, bai eta Emakunderen erakunde laguntzaile izatearen balioa ere, tokiko garapen-alor jakinetan, esaterako, turismoa eta merkataritza, non modernizazioarako eta hobekuntzarako laguntzak eskatzen dituzten enpresek, baldintza hauetakoren bat betez gero, haien eskarien balorazioan 3 puntu gehiago izango dituzten (guztizko puntuazioa 100 da).



2020rako aurreikusitako helburu espezifikoak	Adierazleen kuantifikazioa 2020/12/31 datan	2020rako aurreikusitako helburu espezifikoaren betetze-maila
<p>Gutxienez ere Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatutako pertsonen %40 emakumeak izan daitezten bermatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 2.554 emakume kontratatu Tokiko Enplegu Planen esker (balioetsitako datua) ▪ Tokiko Enplegu Planen bitartez kontratatutako pertsona guztien % 56 emakumeak (balioetsitako datua) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurreikusitako helburua gainditu da (% 40 gehiago) (datu estimatua)
<p>Ekintza positiboa indartzea, gutxienez ere %10eko areagotzeekin laguntza ekonomikoetan eta kontratazioa eta ekintzailtza sustatzeko programa jakinetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 3.690 emakume kontratatu dira ekintza positiboko neurriak dituzten kontratazioarako pizgarrien programen bidez (74 Lehen Aukera programan + 5 gazteen itzulerarako programan + 23 txanda-kontratuan + 16 luzaroko emakume langabetu + 2.554 Tokiko Enplegu Planetan + 810 egoera ahulagoan dauden gunen eta udalerrietako tokiko ekintzetan + 87 gizarte ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko programan + 40 desgaitasuna duten pertsonentzako lagundutako enplegurako programan + 81 desgaitasuna duten pertsonak merkatu arruntean sartzeko laguntza programan ▪ Enpresa berrien % 54 ekintza positiboko neurriak dituzten ekintzailtza sustatzeko programei esker emakumeek zuzendutako enpresa berriak (2019ko datua) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da aplikagarria





ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

6- Generoaren eta adinaren ikuspegia

Genero-ikuspegia

2020. Urteko Plan Operatiboan aurreikusitako jarduera-ildoen garapen-maila aztertuz, ondoriozta daiteke **batezbesteko inpaktu orokorra antzekoa izan dela gizonengan (% 51) eta emakumeengan (% 49)**. Hala ere, desberdintasun batzuk antzeman dira gizonen presentzia handiagoa duten alor edo jarduera jakinetan (esaterako, landa-ingurune eta kostaldeko edo gizarte-ekonomiako enpleguaren sustapenean) edo emakumeen presentzia handiagoa dutenenetan (esaterako, familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzetan).



Kontuan hartu behar da genero-ikuspegiaren analisia espezifikoki pertsonen zuzendutako ekintzetan oinarritu dela (hala nola beka, kontratazioarako laguntza zuzenak, enplegu babestutako laguntzak, prestakuntza-ekintzak eta ekintzailtza-ekintzak), betiere sexuaren arabera banatutako datuen eskuragarritasun errealearen mende.

Emaitzak ekintza-arloko kontutan hartuz gero, hauteman da **goranzko joera arina dagoela autoenplegurantz eta mikroekintzailtzarantz gizonen aldetik (% 54)**, honako programetan ikus daitekeen moduan: Pertsona Ekintzaileei Laguntza emateko programak, Gaztempresa edo Dema programaren moduko beste eragile batzuekin lankidetzan garatutako laguntza-ildoak. Joera hau nabarmenagoa da gizarte ekintzailtzan, zeinetan gizonen parte-hartzeak gehiago zatia hartu duen (% 62).

Gazte enpleguaren alorrean, gizon eta emakumeen presentzia orekatua dago orokorrean jarduera-ildo guztietan, baina gizonen presentzia handiagoa ikusten jarraitzen da programa zehatzetan, hala nola hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzekoetan unibertsitatearen esparruan (% 55), Erasmus beken moduko nazioarteko mugikortasuna bultzatzeko hezkuntza-programetan, ordea, emakume gehiago dago (% 60). Gazteen kontratazioarako pizgarriek dagokienez, Lehen Aukera edo txanda-kontratuak babesteko programaren modukoek gizonen parte-hartzea izan dute gehienbat (% 76 eta % 68 hurrenez hurren), emakumeen kontratazioarako ekintza positiboko neurriak izan arren.

Enplegurako Prestakuntzari dagokionez, **gizonen presentzia arinki handiagoa da (% 53) langabetuei zuzendutako ekintzen kasuan**, baina emakumeen parte hartzea arinki handiagoa izan da langileei zuzendutako ekintzen kasuan (% 54). Era berean, kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzetan emakumeek gehiago parte hartu dutela hauteman da (% 63). Joera hau aldatzen da gaitasun profesionalen ziurtapenean, non gizonak nagusi diren (% 65).

Lan-munduan txertatzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboen enplegarritasuna hobetzeko laguntza-ekintzei dagokienez, **emakumeek parte-hartze handiagoa izan dute (% 56) Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen moduko inpaktu nabarmeneko programetan**. Zentzu horretan, kontuan hartu beharra dago programa honek % 40ko gutxieneko betekizuna ezartzen duela emakumeen kontratazioaren alde, kontratatutako pertsona guztiakin alderatuta. Emakumeak nagusi dira (% 84) enpresetan familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen bidezko kontratazioan. Parte-hartzea orekatuagoa dago luzaroko langabetuak kontratatze laguntzetan (% 45 emakumeak) eta prestakuntza eta lan aktibazioa bateratzen duten proiektu singularretan (% 44 emakumeak).

Bestalde, **desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen trebakuntzan, gizonen baino parte-hartze handiagoa izan dute (% 62)**. Joera hau nabarmenagoa da Enplegu Zentro Berezietan, non emakumeen presentzia oso baxua den (% 35).



Adin-ikuspegia

Adin-ikuspegia modu integralean jorratzen da 2020ko Ekintza Plan Operatiboan, alorren eta programen arabera, baina kolektibo nagusiak ezarri dira laguntza-neurri espezifikoaren onuradun gisa: gazteak eta 45 urtetik gorako pertsonak.



Horrela, **gazteek**, Planean dauden 9 esparruen artean, esparru operatibo propioa dute, “**3. Esparru Operatiboa. Gazteen Enplegua Sustatzea**”, non hainbat laguntza-programen bidez gazteen laneratzea erraztea helburu duten jarduera-ildoak zehazten diren. Programa horiek barne hartu dituzte gazteen **kontratazioarako pizgarri espezifikoak**, hartara gazteen hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa erraztuta, haien titulazioarekin lotutako enpleguetan lehen lan-aukera bat ahalbidetuta, enpresetan edo administrazio publikoan bertan belaunaldi-erreleboari esker gertatzen den ordezkapen-enplegua sustatuta eta enplegua sustatzeko tokiko proiektuetan, 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Operatiboan esparruan, tokiko erakundearen beste proiektuetan parte hartzea bultzatuta eta haien lan esperientzia Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo garatu duten gazteen itzulera sustatuta.

Halaber, gazteen **kualifikazioa eta trebakuntza** sustatu dira atzerrian garatutako esperientzia-programei eta enplegurako eta prestakuntzarako prestakuntza-ekintza eta ekimen mistoei esker, hala nola prestakuntza duala, unibertsitatearen eta lanbide heziketaren esparruan. Bestalde, prestakuntza-ekintza espezifikoak abian jarri dira, kualifikazio baxua duten gazteen gizarteratzea eta laneratzea aktibatze eta beste eragile batzuekin elkarlan-hitzarmenak ezarri dira (Novia Salcedo Fundazioa eta Unibertsitateak) laguntza emateko eta pertsonen laneratzea ahalbidetuko duten ekintza berritzaileak garatzeko.

Ekintzaitzaren kultura eta **gazte ekintzaitza** ere espezifikoki sustatu dira, unibertsitatearen zein lanbide-heziketaren alorrean; ideia berrien garapenerako eta gazte ekintzaitza-proiektuak abian jartzeko eta sendotzeko laguntzak eman dira. Bestalde, tokiko garapeneraren ekintza-esparruarekin lotutako programa jakinek espezifikoki sustatu dituzte landa-inguruneetako eta kostaldeko gazte ekintzaitza eta esperientzia-praktikoa eskuratzea edo merkataritzaren moduko sektoreen profesionalizazioa gazteen kualifikaziorako ekintza espezifikoek esker.

45 urte baino gehiagoko pertsonen dagokienez, lehenasunezko kolektibotzat jo dira hainbat jardueratan; bereziki, **prestakuntza-ekintzen bidez haien enplegagarritasuna hobetzera zuzentzen direnetan, lan-munduan txertatzeko laguntza-ekintza bateratuetan eta tokiko proiektuetan kontratatze pizgarrietan**. Jarduera horien barruan, honako ekintzak egon dira: lan-merkatuak eskatzen dituen kualifikazioekin eta gaitasunekin lerrokaturiko langabetuen prestakuntza osagarria zuzendutako prestakuntza-ekintzak; prestakuntzarako eta enplegu aktibaziorako ekintza berritzaile bateratuak (proiektu singularrak); edo haien zeharkako gaitasunak eta gaitasun pertsonalak hobetzera bideratutako ekintzak, hala nola enplegurako anezkak.

Kontratatze pizgarriari dagokienez, 45 urtetik gorako kontratazioa sustatu da Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen esparruan, lehenasunezko kolektibo onuradun gisa jo baitira. Era berean, **talde horren kontratazioan laguntzeko neurri espezifiko berriak abian jarri dira txanda-kontratuen eta luzaroko langabetuen kontratazioari emandako laguntzen bidez**.





ENPLEGU
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

7- Testuinguruaren adierazle orokorrak

TESTUINGURUAREN ADIERAZLE OROKORRAK

ADIERAZLE EKONOMIKO OROKORRAK	ABIAPUNTU-KO EGOERA (2016)	2017ko EGOERA	2018ko EGOERA	2019ko EGOERA	2020ko EGOERA	DATA ETA ITURRIA	2020-2016 EBOLUZIOA
BPGd-aren urteko hazkundea (%)	% 3,1	% 2,9	% 2,8	% 2,1	% -7,5	2015-2016; 2016-2017; 2017-2018; 2018-2019, 2019-2020 (III) urtetik urterakoa. Eustat	▼
Enpresa-ezarpenen saldo garbia (altak - bajak)	-710	-281	-1.544	922	-3.400	I2015-2016; 2016-2017; 2017-2018; 2018-2019; 2019-2020(datos a fecha 1 de enero de 2020). urtetik urterakoa. Eustat	▼
Sortutako enpresa-ezarpenen kopurua	16.045	15.015	13.550	16.472	13.374	2016; 2017; 2018; 2019; 2020 (2020ko urtarrilaren 1eko datuak).). Eustat	▼
Esportazioen urteko bolumena (milioi eurotan)	21.596	23.857	25.487	25.397	20.864	2016; 2017; 2018; 2019; 2020 Eustat	▼
I+G gastua BPGd-arekin alderatuta (%)	% 1,84	% 1,82	% 1,85	% 1,86 (dato provisional)	-	2015; 2016; 2017; 2018. Eustat	▲



EAEKO LAN-MERKATUAREN ADIERAZLEAK	ABIAPUNTU-KO EGOERA (2016)	2017ko EGOERA	2018ko EGOERA	2019ko EGOERA	2020ko EGOERA	DATA ETA ITURRIA	2020-2016 EBOLUZIOA
Biztanleria aktiboa (milaka pertsonatan, PRA)	1.041,5	1.039,7	1.049	1.048,6	1.047,4	I2016; 2017; 2018; 2019; 2020ko IV hiruhilekoa. Eustat	▲
Jarduera-tasa 16 urte edo gehiago (% , PRA)	56,8%	56,5%	56,9%	56,4%	56,1%	I2016; 2017; 2018; 2019.; 2020ko IV hiruhilekoa. Eustat	▼
Lanean ari diren pertsonak (milaka, PRA)	906,4	921,2	939,1	949,1	930,5	I2016; 2017; 2018; 2019ko IV hiruhilekoa. Eustat	▲
Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak (milaka pertsonatan, hilabeteko batez bestekoa)	925,3	943,98	962,1	980,6	959,1	2016ko abendua; 2017; 2018; 2019; 2020ko iraila (hilabeteko batez bestekoa). Seguridad Social	▲
Enplegu-tasa 16 - 64 urte (% , PRA)	65,9%	66,5%	68%	68,6%	66,9%	I2016; 2017; 2018; 2019; 2020ko IV hiruhilekoa. Eustat	▲
Langabezia dauden pertsonak (milaka pertsonatan, PRA)	130,1	114,8	107,3	97,1	116,9	I2016; 2017; 2018; 2019ko IV hiruhilekoa. Eustat	▲
Langabezia-tasa (% , PRA)	12,6%	11,2%	10,3%	9,3%	11,2%	I2016; 2017; 2018; 2019; 2020ko IV hiruhilekoa. Eustat	▲



EAEKO LAN-MERKATUAREN ADIERAZLEAK	ABIAPUNTU-KO EGOERA (2016)	2017ko EGOERA	2018ko EGOERA	2019ko EGOERA	2020ko EGOERA	DATA ETA ITURRIA	2020-2016 EBOLUZIOA
Erregistratutako langabezia (milaka pertsonatan, Lanbide)	136 ,2	127,5	119,7	114,1	129,2	2016ko abendua; 2017; 2018; 2019; 2020. Lanbide	▲
Enplegu-erregulazioko espedienteak izan dituzten pertsonen kopurua (guztira)	6.283	4.342	3.187	2.449	171.533	2016; 2017; 2018; 2019; 2020. urteko datu metatuak. Lan saila	▼
Enplegu-erregulazioko espedienteen ondoriozko hutsaltzeak izan dituzten pertsonen kopurua (guztira)	638	997	533	297	1.188	2016; 2017; 2018; 2019. urteko datu metatuak. Lan saila	▼
Baimendutako eta/edo komunikatutako enplegu-erregulazioko espedienteen kopurua (guztira)	446	266	187	173	23.786	2016; 2017; 2018; 2019. urteko datu metatuak. Lan saila	▼
Emakumeen jarduera-tasaren diferentziala gizonenarekin alderatuta (p.p, PRA)	-9,50	-9,40	-9,6	-9,2	-9,1	2016ko IV hiruhilekoa; 2017; 2018; 2019. Eustat	▲
Emakumeen langabezia-tasaren diferentziala gizonenarekin alderatuta (p.p, PRA)	0,06	0,05	0,04	1,7	-0,7	2016ko IV hiruhilekoa; 2017; 2018; 2019. Eustat	▲
Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emandako 35 urtetik beherako langabeak (milaka)	34,6	30,67	28,91	28,28	34,7	2016ko abendua; 2017; 2018; 2019; 2020. Lanbide	▼
Luzaroko langabeak (25 urtetik gorakoak langabezia urtebete edo gehiago daramatenak eta 25 urtetik beherakoak langabezian 6 hilabete edo gehiago daramatzatenak) Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emandakoak (milaka)	72,5	67,5	61,1	55,3	67,5	2016ko abendua; 2017; 2018; 2019; 2020ko iraila. Lanbide	▲
Aldi baterako kontratazio-tasa (% , EPA)	% 23,4	% 26,1	% 26,5	% 24	% 22,6	2016ko IV hiruhilekoa; 2017; 2018; 2019; 2020. INE	▲
Lanaldi partzialeko kontratazio-tasa (% , EPA)	%17,7	% 16,8	% 16,4	% 17,5	% 15,8	2016ko IV hiruhilekoa; 2017; 2018; 2019. INE	▲
Lanaldian baja dakarten laneko istripuen intzidentzia-tasa (milakoa)	2,8	2,8	2,6	2,7	2,4	2016ko abendua; 2017; 2018; 2019 (hileroko indizea). Osalan	▲





ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

8- Ondorioak eta balorazio orokorra

Ondorioak eta balorazio orokorra


2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa diseinatu zen EEE 2020 (Enpleguaren Euskal Estrategia 2020) dokumentuan definitutako planteamendu estrategikoa zehazteko helburua zuen plan operatibo gisa. Plan Estrategiko honen helburua da Eusko Jurlaritzako sail bakoitzaren enplegua sustatzeko programak eta zerbitzuak aldi berean koordinatzeko instrumentu bat garatzea. Hori guztia enpleguaren kontzeptu zabal batetik, hau da, lanaren, hezkuntzaren eta sustapen ekonomikoaren alderdiak ere barne hartuta. Bestalde, Enplegu Plan Estrategiko hau 2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programaren bi ardatzetako bat da, suspertze ekonomikoaren ardatzarekin batera.

Maila operatiboan, Enplegu Plan Estrategikoa **2018, 2019 eta 2020 urteetarako Urteko Ekintza Planetan** banatzen da, bakoitzak bere urteko helburu espezifikoak dituelarik, eta horien gainean gauzatu da urteko jarraipena eta ebaluazioa, eta geroko balantze orokorra.

Plana abian jartzeko aurreikusitako aurrekontua 1.175 milioi eurokoa da 2017-2020 aldirako eta, horietatik, 355 milioi euroko aurrekontua onartu zen 2020. urterako. **Planean aurreikusitako jarduera-ildoen garapenak 2020an zehar 262 milioi euroko aurrekontu-exekuzioa eragin du, hau da, 2020rako aurreikusitako aurrekontuaren % 74. 2017, 2018, 2019 eta 2020 urteetan exekutututako baliabide ekonomikoak modu metatuan kontutan hartuz (1.165 milioi euro), aurrekontu-exekuzio orokorrak 2017-2020 aldirako aurreikusitako guztizkoaren % 99 suposatuko luke.** Esparru operatibo guztiek aurrekontu-exekuzio maila altua agertzen dute 2020. urtean eta 2017-2020 aldi orokorrean.

Emaiza kuantitatiboen ikuspuntutik, Planak lan-merkaturako inpaktu orokorra kalkulatu zuen, honela zehaztu zena: 58.000 enpleguaren sustapena, 6.000 enpresa berrien sorrera eta 20.000 gazteri lan-aukera bat eskaintzea. 2020an zehar burututako jarduerari esker, **18.944 enplegu sustatu dira eta 1.736 enpresa sortu dira. Emaiza hauek, 2017, 2018 eta 2019 urteetan lortutakoei gehituta (laguntzei esker sortutako 57.918 enplegu eta sortutako 5.613 enpresa), 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako laguntza bidez sortutako enpleguen helburuaren % 133 (76.862) betetzea eta enpresa berrien sorrerarako helburuaren % 122 (7.349) betetzea dakarte.**

Gazte enpleguaren sustapenaren aldetik, **8.102 gaztek izan dute lan-aukera bat 2020an hainbat programari esker**, besteak beste, beraien titulazioarekin lotutako eta tokiko erakundeetan lanpostuetarako enpresen aldetiko kontratazioa, ekintzaitza gaztea, hezkuntza-arlotik lan-mundura igartzeko lehenengo esperientzia, nazioarteko esparruan esperientzia praktikoa lortzeko bekak eta langileen berrikuntza Lan Eskaintza Publikoen eta txanda-kontratuen bidez. **Emaiza hauek, 2017, 2018 eta 2019 urteetan lortutako emaitzei gehituz gero (27.808 pertsona gazte), 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburuen % 180 (35.909 gazte) betetzea suposatu dute.**



Inpaktu handiko emaitza hauek Planean planteatutako bi helburu estrategikoren betetzea errazten dute. Hirugarren helburua langabezia-tasa denboran zehar modu egonkorrean murriztearekin erlazionatuta dago, 2020ko azkeneko hiruhilekoan % 10etik beherakoa izan dadin. **Langabezi-tasa % 11,2n kokatu da 2020ko laugarren hiruhilabetekoan**, horrek tasa horren 1,4ko murrizketa suposatzen du hasierako egoerarekin alderatuta (% 12,6 2016ko IV. hiruhilabetekoan).

Helburu estrategikoak lortzeko mailari dagokionez, ezin dugu ahaztu **ebaluazioaren testuingurua COVID-19 pandemiak sortutako osasun-larrialdia izan dela, eta horrek eragin handia izan duela bai gizartean eta bai ekonomian; horrek, aldi berean, eragin handia izaten ari da enpleguan nazioarte mailan, estatu mailan eta baita Euskadiren kasuan ere**. Inpaktu hori ez da bakarrik 2020. urtean nabarmena izango, izan ere, litekeena da datozen urteetan eragina ere nabarmena izatea.

